



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko martxoaren 26a

30. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburuek eta material osagarriek curriculum ofiziala hertsiki bete dezaten. Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da laguntza pediatrikoaren egungo eredia ziurta dezan, osasun etxe guztietan pediatra tituludunak jarritz. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere borondatea adierazten du gurasoek edo tutoreek hezkuntza-eredua hautatzeko duten eskubidea bermatzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da eraikin publiko batean Castejónen eta beste udal batzuetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako behar diren gelak finkatu eta egokitu ditzan. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Su-itxaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Plan Zuzendaria/Estrategikoa egin eta aurkez dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu ETA banda terroristak Frantziako Jendarmeriako brigadier buru Jean-Serge Nerin jauna erail izana. Eledunen Batzarrek onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Departamentuetako langileen behin-behinekotasunaren ehunekoari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (9. or.).
- Galdera, Nafarroa 2012 Planeko 2008 eta 2009 urteetako txostenari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egin (9. or.).

- Galdera, Cedernarentzako dirulaguntza izeneko kontusailari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Hezkuntzaren arloko enpresetan kontratatuta egon eta soldata bat jasotzen duten pertsonen buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak ibaiak zaintzeko erabiltzen duen kontusailari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (11. or.).
- Galdera, jakiteko langileak hartzeko zenbat deialdi onetsi diren, hautapen-prozesua zenbatetan hasia den eta zenbat eten diren edo zenbatetan aurkeztu den errekurtsorik 2007an, 2008an eta 2009an, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (12. or.).
- Galdera, Alloko saihebidetako hiru gurutzaguneetan erabili diren konponbide teknikoei buruzkoa, José María Vázquez Royo jaunak egina (13. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Comptos Ganberako 2010. urterako plantilla organikoa eta erakunde horrek 2009ko abenduaren 31n zituen funtzionarioen zerrenda (14. or.).
- Mahaiaren 2010eko urtarrilaren 26ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea (16. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburuak eta material osagarriak curriculum ofiziala hertsiki bete dezaten.

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburuak eta material osagarriak curriculum ofiziala hertsiki bete dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioen azalpena

Hezkuntza Departamentuak, 2009ko martxoan, orduko kontseilari Carlos Pérez-Nievasen bitartez, iragarri zuen Nafarroako ikastetxe publikoetan eta ikastoletan erabilitako Ingurunearen Ezagutzako eta Geografiako euskarazko testuliburuak ikuskatzeari ekinen zitzaiola. Horretarako, gutun bat igorri zitzaien ikastetxeei, gogorarazteko Nafarroako curriculuma bete behar dutela, eta Foru Komunitateko errealitate instituzionala erres-

petatu. Geroago, 2009ko irailean, eskuliburu horien edizioak aztertu ziren, eta detektatu zen haietako batzuk ez zetozeela bat Nafarroako curriculumean ezarritako edukiekin. 2009ko irailean iragarri zen Nafarroako D ereduko 42 ikastetxe publikok eta 15 ikastolak hautatzen dituztela Nafarroako errealitatea islatzen ez duten eskola liburuak. CDN-n uste dugu onartezina dela Nafarroako ikastetxe batzuetan, publikoak nahiz itunduak izan, Nafarroako curriculumaren errespetatzen ez duten eta Foru Komunitatearen nortasuna ere errespetatzen ez duten liburuak erabiltzea, eta, horrenbestez, haietan gure gazteak heztea ikuspuntu historiko eta instituzionaletik okerra den errealitate batekin.

2010eko urtarrilean, CDNko foru parlamentarien elkarteak Nafarroako Gobernuari galdera egin zion, detektaturikoaren arabera, Foru Komunitateko curriculumaren errespetatzen ez zuten testuliburuak buruz. Dirudienez, berehalakoan, 2010eko otsailean, Hezkuntza Departamentuak erabaki du testuliburu horiek ez sartzea beraien doakotasunerako finantzaketa publikoko sistemaren barreran, prentsaren bidez jakin ahal izan baitugu foru agindu bat eman dela, finantzaketa oro bertan behera uzten duena Nafarroako curriculumaren bete-tzen ez duten edo lege-egoera konstituzionala urratzen duten zenbait testuliburu, argitaletxe ezberdinetakoak, erosteari dagokionez.

CDNkook zeharo eskatzen jotzen dugu foru agindu bat ematea zeinaren bidez Hezkuntza Departamentuak ez duen baimenik ematen curriculumari egokitu gabeko testuliburuak eta bestelako material osagarriak doakotasun-sisteman sartzeko, horrek esan nahi baitu baimendu egiten direla, betiere norbait haiek ordaintzeko prest dagoen kasurako.

Ez dirudi onargarria denik Hezkuntza Departamentuak uztea ikastetxe publiko eta itunduetan erabil daitezzen, ordaina tarteko, Nafarroako Foru Komunitateko curriculuma errespetatzen ez duten testuliburuak, Nafarroako Foru Komunitatearen nortasun berekiarekiko begirunerik eza bezalako afera larrietan. CDNkook beharrezkotzat jotzen dugu CDNk Nafarroako Gobernuan bultzaturiko kontrol-ekimenari jarraipen eta buru ematea. Hori dela eta, koherentziaz jarduteko unea iritsi da, Nafarroako erkidego historiko eta berezituaren errealitatea errespetatzeko, eta gure gazteei hala-koa dela irakasteko, ez dadin gerta, hain zuzen ere, inolako manipulaziorik, Foru Komunitatearen

nortasuna, noski, egokiro islatzen ez duenik, horrek etorkizunerako eragina izanen bailuke.

Hori dela-eta, CDNk ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburu eta beste-lako material osagarri guztiek Nafarroako curriculum ofiziala hertsiki bete dezaten.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da laguntza pediatrikoaren egungo eredia ziurta dezan, osasun etxe guztietan pedi-atra tituludunak jarritz.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita laguntza pediatrikoaren egungo eredia ziurta dezan, osasun etxe guztietan pediatria tituludunak jarritz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramirez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentariak, talde horretako eledun gisa, eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Oinarrizko osasun-laguntzan, pediatriak 0tik 14 urtera bitarteko adina duen populazioa artatzen du.

Zalantzarik gabe, zerbitzu horrek Administrazioaren ahalegin bat eskatzen du, behar adina pediatria eskueran izateko.

Ezin ditugu ahaztu oso garrantzitsuak diren zenbait alderdi, hala nola zerbitzu pediatrikoaren kalitatea, oinarrizko osasun-laguntzan bertan familia-medikuek emandako zerbitzuaren kalitateari erreparatzen diogun bezalaxe (kalitate-mailarik altuena lortzeko ahaleginean gainerako profesionalek duten zeresana inoiz ere ahaztu gabe).

Ezin dugu onartu profesionalik eza izatea haurren gaur egungo osasun-zerbitzua arriskuan jar dezakeen faktore bihurtzea eta zerbitzuaren kalitatea bigarren maila batera jaitea.

Pediatria bakoitzeko haur kopurua 800ekoa izan beharko litzateke, eta gehienez ere 1.000koa, kontuan harturik, kasu honetan, sakabanaketa geografikoa, populaziorik gazteeneko multzoak eta problema sozial larriagoak edo etorkinen proportzio handiagoa dituzten populazioak artatzen dituzten pediatriak.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du laguntza pediatrikoaren egungo eredia ziurta dezan, osasun-etxe guztietan pediatria tituludunak jarri, eta pediatria ordezkatzailleak egonen direla

bermatuz bajak, oporrak, atsedenaldiak eta abar izaten direnerako.

Iruñean, 2010eko martxoaren 17an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere borondatea adierazten du gurasoek edo tutoreek hezkuntza-eredua hautatzeko duten eskubidea bermatzeko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere borondatea adierazten baitu gurasoek edo tutoreek hezkuntza-eredua hautatzeko duten eskubidea bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Maiorga Ramirez Errok eta Patxi Zabaleta Zabaletak, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko ele-dunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

Gizarte moderno bat da bere herritarrei askatasun handia ziurtatzen diena aukera pertsonala gero eta arlo gehiagotan gauzatzeari dagokionez.

Nafarroa Bairen apustua da halakoa non herritarrek, beren nahia bera beste mugarik izan gabe, aurrera egin ahal izanen baitute beren bizitza pertsonalari eragiten dioten gero eta arlo zabalagoen aukeraketan.

Zentzu horretan, hezkuntzari dagokionez, Nafarroa Baik ezinbestekotzat jotzen du Nafarroako herritarrei nahi duten hezkuntza-eredua aukeratzeko modua ematea. Horregatik, Administrazioak aukeraketa hori egin ahal izateko moduko hezkuntza-eskaintza bermatu behar du.

Kontua da jadanik badirela urte asko gaur egungo mugak haratago eramateko beharrezana hautematen dela, ezein herritarri ez dakion uka, modua ez eskaintzearen bidetik, hezkuntza-eredua dela-eta egin duen aukeraketa.

Zergatik mugatu behar dugu herritar baten hautua, bere semea edo alaba euskarazko eredu batean matrikulatzeko bere erabakimena gauzatzekoan?

Ekimen honen bidez Nafarroa Baik lortu nahi duena da gizartearen eskaera bati erantzutea, zeren eta, bestela, aukera-multzo murriz bat eskaintzen baita, Nafarroan herritar-multzo bati kalte egiten diona beste herritar-multzo baten aldean.

Horregatik guztiagatik, parlamentu-talde honek ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak bere borondatea adierazten du gurasoek edo tutoreek hezkuntza-eredua hautatzeko duten eskubidea bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren ekimenak eta baliabide-zuzkidurak egin ditzan, Nafarroa osoan D ereduaren aukeraketa bermatzeko.

Iruñean, 2010eko martxoaren 17an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eraikin publiko batean Castejónen eta beste udal batzuetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako behar diren gelak finkatu eta egokitu ditzan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eraikin publiko batean Castejónen eta beste udal batzuetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako behar diren gelak finkatu eta egokitu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak foru lege bat onetsi zuen 2001eko maiatzaren 17an, Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeko buruz Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 30ean hartu zuen Erabakia betearazteko.

Lege proposamen horrek bere artikulua bakaurrean ezartzen zuen Nafarroako Gobernua behartuta dagoela Castejón herrian Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza-zerbitzuak berreskuratuz. Horrela, udalerr-

ak eginiko eskolatzeko-erantzun bat ematen zitzaion.

Nafarroako Gobernuak, behin-behinekoz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bi mailak antzinako eraikin batean kokatu zituen, "Colegio Sagrados Corazones" gisa ezaguna den horretan. Nafarroako Gobernua ez da eraikin horren jabea, eta horren erabileraren truke alokairutan eta mantentze-lanetan ordainduriko diru-kantitatea ez da nolana hiko (2009an, kopurua 39.689,41 eurokoa izan zen).

2009-2010 ikasturte honetan, ikastetxe horretara joaten ari diren ikasleak bi klasetan banatuta daude; guztira, 52 pertsona dira. Ikasle-kopurua bilakaerak erakusten du datozen urteetan bi lerro beharko direla, eta hirugarren bat ere bai, agian. Eraikin horrek, bere antzinatasunarengatik, eta behar bezalako mantentze-lanik egin ez zaio-lako, irakaskuntza publikoan eskaini beharreko kalitate-baldintzak ez ditu betetzen. Horrez gain, kostu handia dauka Nafarroako Gobernuarentzat.

Haurrek beren udalerrian ikasteko modua izaten dutenean, bizi-kalitate eta jende-errotze handia lortzen dira, herrian elkarbitza askoz ere trinkoagoa egiteaz gain.

Hori dela-eta, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Castejónen eta antzeko egoeran dauden gainerako udalerrietan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza indar dezan.

- Nafarroako Parlamentuak Gobernua premiatzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza behar den kalitatearekin Castejónen irakasteko beharrezkoak diren ikasgelak eraiki ditzan edo eraikin publiko batean egokitu ditzan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Plan Zuzendaria/Estrategikoa egin eta aurkez dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Plan Zuzendaria/Estrategikoa egin eta aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Plan Zuzendaria/Estrategikoa egin eta aurkez dezan.

Zioen azalpena

2009ko maiatzean funtzionatzen hasi zen Cordovillako suhiltzaile-etxe berria.

Era berean, Trinitariosko etxe berria irekitzeaz dago, eta zenbait etxeri buruzko aurreikuspenak aldatu egin dira; adibidez, Azkoiengoari buruzkoak.

Horrez gain, azken urteotan gorakada izan da giza baliabideen hornikuntzan: suhiltzaile-kaboak, sargentu ofizialak eta ofizialordeak eta administrazioak.

Plan zuzendaria 2003koa denez, eta bere indarraldia 2006ra bitartekoa, eta zerbitzuaren ezaugarriak kontuan izanik, beharrezkotzat jotzen da plan berri bat pentsatzea; ez soilik plan zuzendari gisa, baizik eta plan estrategiko gisa. Izan ere, zerbitzua eta bere giza baliabideak nahiz baliabide materialak finkatuta, orain bidezkoa litzateke etorkizunari begira, zerbitzu honen bilakaera- eta kudeaketa-lerroak definitzea, segurtasun publikoaren, suteen prebentzioaren eta salbamenduaren alorrean sorturiko beharrizan berriak kontuan harturik.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Plan Zuzendaria/Estrategikoa egin eta Legebiltzarrari onespenerako aurkez diezaion, lau hilabeteko gehieneko epean eta, betiere, 2010eko urriaren 1a baino lehenago.

Iruñean, 2010eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu ETA banda terroristak Frantziako Jendarmeriako brigadier buru Jean-Serge Nerin jauna erail izana.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2010eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“ETA banda terroristak Frantziako jendarmeriako polizia bat erail zuen Pariseko aldirietan, joan den asteartean. ETA banda terroristaren beste erailketa honen aurrean, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du modurik erabatekoenean gaitzesten duela ETA banda terroristak Frantziako Jendarmeriako brigadier buru Jean-Serge Nerin jauna erail izana, joan den asteartean, Parisen.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazi nahi die eraildako jendarme frantsesaren ahaideei eta lankideei, eta jaun hark zerbitzuko eginkizunetan bizitza hain modu bidegabe eta ankerrean galdu izanak eragindako saminean bat egiten du haiekin.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuak aitortu egiten du Segurtasun Kidego eta Indarrek eta, kasu honetan, bereziki Frantziako Jendarmeriak, indarkeria terroristaren aurka eta herritarren eskubide eta askatasunen alde eginiko ekarpen garrantzitsua, batzuetan bizitza bera galtzera daraman ahalegina ere badena, eta betetzen ari diren ezinbesteko zereginarekiko elkartasuna eta aldekotasuna helarazi nahi dizkie.

Laugarrena.- Nafarroako Parlamentuak agerian utzi nahi du uste osoa duela Zuzenbide Estatuaren indarrak, Segurtasun Kidego eta Indarren jardunak eta justizia-auzitegien erabakiek ETAREN terrorismoa amaiazaraziko dutela, zeinak beste emaitzarik lortzen ez baitu, biktimei izugarritzko samina sortzea baizik; eta biktimei, hain zuzen, berriro ere adierazten diegu indar demokratikook gure aldekotasuna eta elkartasuna”

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Departamentuetako langileen behin-behinekotasunaren ehunekoari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Departamentuetako langileen behin-behinekotasunaren ehunekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Behin-behinekotasunari buruzko galdera:

1. Nafarroako Gobernuko departamentu bakoitzean, zein zen langileen behin-behinekotasunaren ehunekoa 2009ko abenduaren 1ean?

2. Zer-nolako bilakaera izan du behin-behinekotasun horrek departamentuetako bakoitzean azken sei urteotan?

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Nafarroa 2012 Planeko 2008 eta 2009 urteetako txostenari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Nafarroa 2012 Planeko 2008 eta 2009 urteetako txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko gal-

dera aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak idatziz erantzuteko:

Nafarroa 2012 Planeko 2008-2009 urteetako txostenaren zenbat ale argitaratu dira? Zenbat kostatu dira?

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Cedernarentzako dirulaguntza izeneko kontusailari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Cedernarentzako dirulaguntza izeneko kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Aurrekontu-lerroa: 72300 7220004819412103.
Cedernarentzako dirulaguntza (300.000 euro).

Zein da aurrekontu-lerro horren helburua? Zer ekintzatarako emana da dirulaguntza? (Cedernari diruz lagundukok zaizkion jardueretako bakoitza zehaztea eskatzen dugu).

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Hezkuntzaren arloko enpresetan kontratatuta egon eta soldata bat jasotzen duten pertsonen buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntzaren arloko enpresetan kontratatuta egon eta soldata bat jasotzen duten pertsonen buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezazkion:

Zein pertsona dira hileroko soldata Nafarroako Gobernuarengandik jasotzen dutenak, lan-kontratupeko harreman bidez kontratatuak egonda hezkuntzaren arloko entitate, erlijio-orden edo enpresetan? Halaber, zein da kontzeptu horretan Nafarroako Gobernuak 2010eko otsailaren 28an ordainduta zeukan guztizko zenbatekoa?

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, Nafarroako Gobernuak ibaiak zaintzeko erabiltzen duen kontusailari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak ibaiak zaintzeko erabiltzen duen kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein kontusail erabiltzen du Nafarroako Gobernuak ibaiak zaintzeko, 200.000 euroko dirulaguntza duena, ikusi ahal denez?

Iruñean, 2010eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, jakiteko langileak hartzeko zenbat deialdi onetsi diren, hautapen-prozesua zenbatetan hasia den eta zenbat eten diren edo zenbatetan aurkeztu den errekurtsorik 2007an, 2008an eta 2009an.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, jakiteko langileak hartzeko zenbat deialdi onetsi diren, hautapen-prozesua zenbatetan hasia den eta zenbat eten diren edo zenbatetan aurkeztu den errekurtsorik 2007an, 2008an eta 2009an.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakari, Barne eta Justizia Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Kontuan harturik langile-kudeaketaren bilakera, eta, zehazkiago, lanpostu hutsak eta haien betetzea, honako galdera hauen erantzuna jakin nahi nuke:

1.- 2007, 2008 eta 2009ko abenduaren 31n zenbat lanpostu-deialdi zeuden onetsita Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zerbitzurako?

2.- Zenbat deialditan zegoen hasita hautapen-prozesua 2008, 2009 eta 2010eko otsailaren 15a baino lehenago? Xehaka bitez lanpostuak eta haien mailak.

3.- Azken hiru urteotan, zenbat deialdi eten dira, zer lanposturi eragiten diete eta zergatik eten dira? Haietako zenbati berrekin zaie? Zenbat ebatzi dira, eta zer egunetan hasi dira langileak kasuko lanpostuko jardunean?

4.- Duela zenbait urte etendako deialdietako lanposturik edo denbora-mugarik gabe eten izanaren ezaugarriak dituen lanposturik ba al dago? Zein lanpostu dira horiek? Zein dira egoera horren zergatiak?

5.- Zenbat errekurtsorik aurkeztu zaizkie lanpostu publikoen deialdiei azken hiru urteotan? Zein da errekurtsoren emaitza-indizea?

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Aloko saihebidetako hiru gurutzaguneetan erabili diren konponbide teknikoak buruzkoa.

JOSÉ MARÍA VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José María Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, Aloko saihebidetako hiru gurutzaguneetan erabili diren konponbide teknikoak buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José María Vázquez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Aloko saihebidetako eraikitze proiektuarekin, herri horretako sarbide eta irtenbideei zuzen-zuzenean eragiten dieten hiru bidegurutze egin dira. Horietako bat, errei zentral baten bidez, eta beste biak, biribilgune irekien bidez, Arroitz eta Sesmako

errepideetako gurutzaguneetan. Obra hau zerbitzuan sartu zenez geroztik, agerian geratu da zerbateraino diren arriskutsu gurutzagune horiek; batez ere, Sesmako errepideetako lotura egiten duena; izan ere, tamalez hildakoak ere izan dira; azkena, berriki. Gurutzagune horien arriskua kontuan izanik, jakin nahi dugu zer ari den Herri Lan, Garraio eta Komunikazio egiten edo zer egiteko asmoa duen, eta horretarako, honako hau galdeztzen dizut:

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren ustez, egokiak eta ziurrak al dira Aloko saihebidetako herri horrekin dituen hiru gurutzaguneetan erabili diren konponbide teknikoak egokiak eta seguruak al dira, bai eta Arroitz eta Sesmako errepideetako lotura egiten dutenak ere?

Baldin eta horietakoren bat ez bada eraikitze-proiektuan bilaturiko eta aurreikusitako segurtasun-mailen arabera, dirudenez agerian geratzen ari den bezala, gurutzagune horietan zer neurri hartu du edo hartzeko asmoa du Herri Lan Departamentuak, haiei segurtasun handiagoa emateko eta ahal den neurrian saihesteko orain arte izan den arriskua?

Aloko saihebidetako eta Sesmako errepideetako gurutzaguneetan inolako konponbide berezirik hartzeko asmorik ba al du, eta baiezkoan, zein? Gune hori nabarmenki arriskutsua ari baita izaten, eta bertan jadanik zenbait pertsona zendu dira, eta beste batzuek istripu zeharo larriak izan dituzte.

Iruñean, 2010eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: José M.^a Vázquez Royo

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Comptos Ganberako 2010. urterako plantilla organikoa eta erakunde horrek 2009ko abenduaren 31n zituen funtzionarioen zerrenda.

Comptos Ganberako lehendakariak, behean ageri den egunean, honako ebazpen hau eman zuen:

«Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiek hurrenez hurren xedatzen dutenez, urtero onetsi behar dira Comptos Ganberaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa eta funtzionarioen zerrenda.

Hartara, ikusita erakundearen idazkari nagusiak martxoaren 2an aurkeztutako proposamena, Ganberako administratzailearen, kontu-hartzailearen eta zerbitzu juridikoen aldeko txostena jaso ondotik eta Comptos Ganberako Langileen Batzordeari informatu eta entzun ondotik, lehendakari naizen aldetik, nire ahalmen eta eskumenak baliatuta, ondokoa

EBATZI DUT:

Lehena. Nafarroako Comptos Ganberako 2010. urterako plantilla organikoa onestea. Plantilla 1. eranskinean ageri da.

Bigarrena. Nafarroako Comptos Ganberako funtzionarioen 2009ko abenduaren 31ko zerrenda onestea. Zerrenda 2. eranskinean ageri da.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea behar diren ondorioak sor ditzan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agin dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 11n

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

1. eranskina

Comptos Ganberako plantilla organikoa 2010. urterako

Lanpostua	Kopurua	Maila	Araubide juridikoa	Euskararen titulazioa	Izendapen askea	Eskusibitatea	Lanpostua	Mailako osagarria	Berariazko osagarria
Lehendakariaren aholkularia	1		G		X				
Lehendakariaren idazkaria	1		G		X				
Idazkari nagusia	1	A	F		X	55	80,80		35
Auditorea	4	A	F			55	80,80		10
Legelaria	2	A	F			55	63,80		
Kazetari-itzultzailea	1	A	F	X		55	59,80		
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A	F			55	40,80		
Auditoretzako teknikari- kontu-hartzailea	1	B	F			55	50,20		20
Auditoretzako teknikaria	15	B	F			55	50,20		
Auditoretzako teknikaria	2	B	F	X		55	50,20		
Administratzailea	1	C	F		X	55	58,00	12	
Administraria	5	C	F				46,18	12	
Administraria	1	C	F	X			46,18	12	
Mandataria	2	D	F				36,50	15	
GUZTIRA.....	38								

F: funtzionarioa

G: Kabineteko behin-behineko langilea; izendapen librekoa.

2. eranskina

2009ko abenduaren 31n Nafarroako Comptos Ganberaren
zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda

Deiturak eta izena	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
Ordoki Urdazi, Luis M ^a	A	6	Idazkari nagusia	Aktiboa
Cabeza del Salvador, José Ignacio	A	6	Auditorea	Aktiboa
Muruzábal Lerga, Jesús Salvador	A	6	Auditorea	Aktiboa
Olaechea Estanga, M ^a Asunción	A	5	Auditorea	Aktiboa
Lanpostu hutsa	A		Auditorea	--
Ezquerro Royo, José Luis	A	6	Legelaria	Aktiboa
Sánchez Lerma, Gemma Angélica	A	3	Legelaria	Aktiboa
Arrieta Gutiérrez, Francisco Javier	A	7	Informatikako sistemen goi mailako teknikaria	Aktiboa
Erbiti Zabalza, Fermín	A	4	Kazetari-itzultzailea	Aktiboa
Biurrun Martiarena, José Miguel	B	6	Auditoretzako teknikari- kontu-hartzailea	Aktiboa
Aurrecochea Gutiérrez, Miguel Ángel	B	4	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Azcona Díez de Ulzurrun, M ^a Carmen	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Balduz Gil, Elvira	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Bobadilla Bacaicoa, M ^a Pilar	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Equiza Maquirrian, M ^a José	B	7	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Etayo Salazar, Francisco José	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Fernández Renedo, Blanca Esther	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Gil Ochoa, M ^a Antonia	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Herrera Isasi, M ^a Begoña	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Irigoyen Olaiz, M ^a Lourdes	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Marticorena Chapa, Xavier Iñigo	B	3	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Martinikorena Matxain, Miren Edurne	B	2	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Moreno Orduña, Karen	B	2	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Rodríguez Jiménez, Ainara	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Sola Mateos, M ^a Pilar	B	6	Auditoretzako teknikaria	Zerbitzu bereziak
Zudaire Echávarri, Antonia Aurora	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Zudaire Echávarri, Rosa Isabel	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Fernández Goñi, Joxe Julen	C	6	Administratzailea	Aktiboa
Casado Redin, Cristina	C	5	Administraria	Aktiboa
Elizalde Del Rincón, Teresa	C	4	Administraria	Aktiboa
Elizalde Elizalde, M ^a Julia	C	6	Administraria *	Aktiboa
Lander Laurenz, M ^a Isabel	C	5	Administraria	Aktiboa
Pérez de Albéniz Andueza, Francisca	C	4	Administraria	Aktiboa
Lanpostu hutsa	C		Administraria	—
Almingol Muñoz, Jesús Emilio	D	5	Mandataria	Aktiboa
Zudaire Echávarri, M ^a Trinidad	D	5	Mandataria	Zerbitzu bereziak

* Euskara tituluarekin

Mahaiaren 2010eko urtarrilaren 26ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Langileen Batzordeak 2010eko martxoaren 10ean erabaki bat hartu zuen, zeinaren bidez, lehenik eta behin, eskatzen baitu goizeko lanaldia ezartzea aurtengo apirilaren 6, 7 eta 8an, Parlamentuko lanen aurreikuspenak horretarako modua emanaz gero. Eta, bigarrenik, eskatzen du goizeko lanaldia arau orokor gisa ezartzea parlamentu-jarduerarik ez dagoen guztietan (normalki, Pazko astean eta Eguberrietan), horretarako berariazko eskaerarik egin behar izan gabe.

Lehenbiziko eskaerari dagokionez, kontuan izan behar da egun horietarako ez dela arratsaldeko parlamentu-jarduerarik aurreikusten, eta, Parlamentuak eta Langileen Batzorde horrek 2002 eta 2003rako sinaturiko hitzarmenaren 3.2.a) atalean xedatuaren arabera, Aste Santuaren hurrengo astean goizeko ordutegia ezarriko dela, parlamentu-lanaren aurreikuspenak horretarako modua emanaz gero.

Kontuan izan behar da, orobat, eta bigarren eskaerari dagokionez, aipatzen duen afera jadanik orokorrean jasota dagoela aipaturiko 3.2. atalean eta, bertako d) letraren arabera, Langileen Batzordeak eskatu eta zehaztu beharko duela, urteko lan-egutegiaren proposamena egiten duenean,

goizeko lanaldikoak izateko zein egun jotzen dituen egokitzat, Mahaiak halakotzat ezar ditzan egutegi hori onestean.

Hori horrela, 2008tik 2011ra bitarteko Nafarroako Parlamentuaren eta Langileen Batzordearen akordioko 10. atalarekin eta lehenago adierazitako akordioko 3.2. atalarekin bat, honakoa ERABAKI DA:

1. Mahaiaren 2010eko urtarrilaren 26ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea; halatan, 2010eko apirilaren 6, 7 eta 8ko lanaldia goizekoa izanen da, baina horrek ez du ezertan eragotziko beharrezkoak diren langileak eskuragarri egotea Legebiltzarreko lana goizeko ordutegitik kanpo egiteko, beharrezkoa izanez gero.

2. Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2010eko urtarrilaren 26ko Erabakiaren bidez onetsitakoa, aldatzea; halatan, 2010eko apirilaren 6, 7 eta 8an, 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta jakinaraztea parlamentu-taldean eta foru parlamentarien elkarteetan eledunei, Langileen Batzordeari, Legelari Nagusiarri eta Legebiltzarreko zerbitzaburuei.

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda